

A24 - Egia ala gezurra? Esperimentu faltsuei mozorroa kentzen

Terraplanismoaren ideia ere baliozko teoria bat balitz bezala zabaltzen ari den garai honetan, informazio faltsu asko dabil sareetan bueltaka. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da espiritu kritikoa bultzatzea, batez ere zientziaren esparruan, nahikoa irizpide izateko, informazio fidagarria eta intoxikazio edo iruzurra bereizteko.

Ikasurtea

4. DBH

1. Batxilergoa

2. Batxilergoa

Data

Adosteko

Lantzen diren irakasgaiak

Kultura zientifikoa

Fisika

Fisika eta kimika

Teknologia

Teknologia industrialia

Lanbide orientazioa

Jarduera mota

Adituaren bisita erakundera

Hizkuntza

Euskara/Gaztelera

Irismen geografikoa

Araba

Bizkaia

Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea

Tecnalia

Curriculumaren edukiak

Kultura zientifikoa.

Zer ikasten dute ikasleek?

ChatGPT ezagunak ere ematen ditu erantzun faltsuak batzuetan; izan ere, Interneteko iturriak erabiltzen ditu, informazio faltsua baztertzeko irizpide nahikorik gabe. Interneten bilaketa bat eginda, ustez baliozkoak diren esperimentuen ehunka bideo aurkituko ditugu, itxuraz etengabeko higidura sortzen duten makinak edo energia-iturri agortezin eta doakoak diren muntaiak erakusten. Lantegi honen helburua da ikasleek espiritu kritikoa garatzeko beharra sentitzea, irizpide zientifiko nahikoa izatea, esperimentu errealak eta bulo sasizientifikoak bereizteko. ChatGPT baino azkarragoak izaten ikasiko dugu.

Garapena

Espiritu zientifiko kritikoa garatzearren, lantegi bat proposatuko da, zenbait esperimentu aztertzeko eta eztabaidatzeko: batzuk modu praktikoan, lantegian bertan, eta beste batzuk birtualki, Interneteko bideoen bidez. Horrela, mozorroa kenduko diegu ustez etengabe higitzeko ahalmena duten makina faltsuei, eta energia-iturri ezkutatuak aurkituko ditugu faltsuak diruditen arren benetan funtzionatzen duten makinetan. Proposatutako esperimentu baliodunen artean daude Heronen iturria, Jottabichen ahatea eta Crookesen erradiometroa.

Baliabideak

Espazio egokia, lan-mahaiekin (ez auditorium bat). Proiektagailua. Interneterako konexioa.